

<< Musika >>

A: Mariemi Otaola

B: J. A. Echenique - G. Ormazabal - L. F. Rupérez

Área 2- Creación y Expresión Artística

2. Arloa: Sorkuntza eta Espresio Artistikoa

(Euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

<< Musika >>

A: Mariemi Otaola

Área 2- Creación y Expresión Artística

2. Arloa: Sorkuntza eta Espresio Artistikoa

(Euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

MUSIKA

MUSIKA gaiak oso alderdi desberdinak eta bakoitza bere aldetik aztertu beharreko atal bereziak hartzen ditu barne. Gure komunitateko musika-egoerari buruzko lehen hausnarketa honetan, ikuskizuntzat hartzen den musika klasikoa bi ikuspegitatik aztertuko dut: eskaintzaren eta eskaeraren ikuspegitik; nazioartean arrakasta izan duten esperientziak proposatuko ditut eta lortu beharreko helburuetatik ez aldentzeko saihestu ezin diren jarduera-lerroak gomendatuko ditut.

90eko hamarkadan, musika- eta kultura-eskaintza asko handitu zen ekipamendu handiak ireki zirelako, hala nola: Kursaal, Euskalduna jauregia, Barakaldo antzokia... Eskaintza, beraz, asko handitu zen, besteak beste, areto berriak oso handiak zirelako, eta, ondorioz, eskaera proportzio berean nola handi zitekeen hausnartu behar izan zen, haiek ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Kultura Ministerioaren datuen arabera, EAEko herritarren kultura-kontsumoa estatuko batezbestekoa baino handiagoa da, baina Europako Batasuneko herrialde aurreratuetakoa baino dezente txikiagoa. Zehazki, musika-ikuskizunei dagokienez, EAEko herritarren % 10ek adierazi du azken urtean musika klasikoko kontzerturen batean izan dela; ehuneko hori estatuaren batezbestekoa (% 6,8) baino handiagoa da, baina, adibidez, Holandako batezbestekoa baino askoz ere txikiagoa, herrialde horretan, herritarren % 43 urtean behin musika klasikoko emanaldi batean izaten baita.

Kezkarik handiena Bilbok sortzen zuen; izan ere, Bilbo tradizioz hiri industrialia izanik, 1989an hiria birgaitzeko prozesu bat jarri zen martxan, batez ere, artearekin eta kulturarekin loturatako hiriaren irudia emateko. Kezka horren ondorio da, hain zuzen ere, **“Kultur eskariaren suspergarria Bilbao Metropolarrean”** izeneko dokumentua –96an Bilbao Metr poli-30 Elkarteak argitaratua–.

Unibertsitateko, administrazio publikoko eta enpresa pribatuetako zenbait adituk egin zuten dokumentua, lan-taldetan banatuta, eta eragile publiko zein pribatuei eskaini zitzaion; dokumentuan hainbat gomendio eman ziren kultura-eskaintza zehaztuko zuten faktoreetan eragina izan zezaten. Dokumentu horretako zenbait helburu hausnarketa honen xedearekin bat datozenez, iruditzen zait interesgarria dela erreferentziazko aurrekari gisa aipatzea.

Sei urte igaro dira eta ziurgabetasun hark errealitate distiratsu bati egin dio lekua, publikoaren erantzunari dagokionez. Instalazio berriak bete egiten dira EAeko bi orkestra sinfonikoen denboraldietan, BOLEren denboraldian eta Musika Hamabostaldian.

Hala ere, beti erantzun berdina ez badute ere, lehen mailako musika-ikuskizun batzuetan aretoak erdi hutsik izaten dira. Horrez gain, beste zenbait datuk (lekuz kanpoko txaloak, prezio bereziko edo oparitutako sarrera ugari, kontzertuetan jende gaztearen falta, etab.) zuhur izatera behartzen gaituzte, izan ere, **melomanoak ez baitira egun batetik bestera sortzen eta akuilatu, finkatu eta audientzia berri egin behar baitira.**

Lehen aipatutako dokumentuan puntu hauek ezartzen ziren **kultura-eskaria zehazteko faktore gisa:**

- Kultura-sentsibilizazioa hezkuntza-sisteman.
- Kultura-sentsibilizazioa gizarte-ohituretan.
- Kulturaren kudeaketa hobetzea.
- Komunikabideak kultura-sentsibilizazioan gehiago parte hartzea
- Interes orokorreko jardueretan ekimen pribatuek parte hartzeko bideak optimizatzea
- Erakundeen koordinazioa eta eraginkortasuna kultura-hedakuntzan.
- Unibertsitateak kultura-eskaintzan eta eskaeran parte hartzea
- Kulturaren industria sustatzea.

Lehen puntua zehaztu nahi dut, diagnostikoa eguneratzeko, **hezkuntza-sistema oinarrizkoa baita, zalantzarik gabe, etorkizunean izan nahi ditugun audientzia dinamiko eta zorrotzak sortzeko, bai eta gure orkestrek behar dituzten maila altuko musikari profesionalak sortzeko ere.**

Hamarkada bat igaro da, dagoeneko, musika-irakaspenak aldatu eta Logse legea ezarri zenetik; eta denboraldi hori guztia nahikoa da emaitzak ebaluatzeko, lortu nahi diren helburuak lortu diren edo ez ikusteko. Gogora ditzagun hauek:

- Haurtzarotik musika ezagutu eta estimatzeko ekintzak sustatzea, eta haurrak txiki-txikitatik musika ikasten hastea.
- Musika-tresnak jotzen ikasteko eskaintza egitea, dela taldeka dela banaka jotzeko.
- Musika-tresnak jotzen ikasteko musikako ikasgai osagarriak eskaitzea.
- Ahots- eta musika-taldeetan parte hartzeko interesa sustatzea ikasleetan.
- Ekitaldi publikoak antolatzea eta amateurren musika-jardueretan parte hartzea.
- Adin-mugarik gabeko musika-hezkuntzaren eskaintza zabal eta dibertsifikatua garatzea.
- Ikasleak talentu eta bokazio berezia duenean, irakaskuntza profesionalean sartzeko bideratzea, eta, dagokionean, irakaskuntza-maila horretara iristeko behar den trebakuntza ematea.
- Musika-eskolak.

Logse legea ezarri zenetik, Musikako Udal Akademiek, Oinarrizko Kontserbatorio zaharrek eta abarrek aldaketa handiak izan dituzte egiturari dagokionez. Aldaketa nagusia lehengo Oinarrizko mailaren diploma kentzea izan zen. Lege hori ezarri baino lehen, musika irakastearekin loturaren bat zuten zentro guztiek ekainean azterketak gainditzera bideratzen zuten hezkuntza-proiektua. Horiek gaindituta, urte batzuen buruan, diploma bat eskura zitekeen eta, batez ere, Erdi Mailako ikasketak egiten segitzeko –ofizialki edo nork bere kabuz– aukera ematen zuten.

Diploma horren eta ikasketekin segitzeko aukeraren ondorioz, heziketa-maila jakin bat lortu behar zuten ikasleen, gurasoek eta irakasleek. Gaur egun ez dago ez azterketarik, ez eta titulaziorik ere, eta Erdi Mailara sartzea zaila da, plazarik ez dagoelako, batetik, eta batxilergoarekin bateratzea zaila delako, bestetik; ondorioz, praktikan, heziketa-maila izugarri txikitu da, galdetu diedan irakasleek adierazi dutenez, ahalegin txikiaren legea baita nagusi.

Aldaketa horrek, bestalde, beste ondorio bat izan du –iturri berdinen arabera–: ofizialki musika-eskola guztiek irakaskuntza-programa zehatz bat aurkeztu behar badute ere, dirudienez, inor ez da arduratzen maila hori erdiesten den egiaztatzeaz. Beraz, elkarrengandik hurbil dauden musika-eskola batzuek oso eduki eta zorrotzasun-maila desberdinak dituzte. Bestalde, ia musika-eskola guztiek enpresen kudeaketa-sistema dute; beste zenbait irizpide alboratuz, ikasle-kopuru jakin bat lortzea eta horri eustea da helburu nagusia, eta, ondorioz, heziketa-maila izugarri txikitu da.

Bestalde, udalek –finantziazio-iturri nagusiak– lanpostuak eta irakasleen lan-kontratuak berregituratu zituzten. Kontratu berriak ordukakoak dira. Dirudienez, gainera, kontratazio-sistema horrekin, irakasleek ikasle-kopuruari eutsi behar diote, ikasle-kopuruaren arabera baita soldata.

Arazo horien eta azaltzen joan diren beste batzuen ondorioz, emaitza asko alden du da hasiera-hasierako helburuetatik; beraz, **egin behar diren egokitzapenak lehenbailehen berrikusi eta zuzendu behar dira eta gero segimendua egin behar zaie, irakaskuntzaren kalitateak, beti, lehentasuna izan dezan.** Hori, hain zuzen, ez litzateke matrikulatutako ikasle-kopuruaren arabera neurtuko, hortik Erdi Mailako Kontserbatorio batera pasatu den ikasle-kopuruaren arabera baizik.

Hezkuntza- edo kultura-politika guztiak arriskutsuak dira, zeren eta, erakundeen esku dagoenaz gain, kontrolatu ezin diren faktore sozial ugariaren arabera baita; beraz, behar-beharrezkoa da pertsona aditu eta independenteek emaitzen segimendua egitea eta ebaluatzea.

Dirudienez, politikaren ginetik eta joera pedagogikoez gain, adostasuna dago hiru puntu nagusi hauean:

- Haur-hezkuntza sustatzea (eginkizun horretarako hezitzaile gaiturik ez egotea da arazonagusia).
- Irakaskuntza hobetzea –metodoei dagokionez, batez ere–, ikaslearen ekimena sustatzeko, bere motibazioa handi dadin.
- Irakaskuntza ebaluatzeko bitartekoak sartzea, ohiko azterketetan geratu gabe, baina horiek kendu gabe. Badirudi frogatuta geratu dela ebaluazioa oinarritzkoa dela kalitatea hobetzeko.

“Musika ikastea –Barenboin-en arabera– giza izaerari buruz zerbait ikasteko bitartekorik onenetakoa da. Horregatik atsekabetzen nau, gaur egun, eskoletan ia musika-hezkuntzarik ez dagoela ikusteak. Haurrak helduen bizitzarako prestatzea da hezkuntza; nola jardun nahi duten eta zer gizaki-mota izan nahi duten erakustea. Gainerakoa, informazioa besterik ez da, eta oso modu sinplean ikas daiteke. Musika ongi jotzeko, buruaren, bihotzaren eta sabelaren arteko oreka aurkitu behar duzu. Hiru horietakoren bat ez badago edo nabarmenegi badago, ezin duzu erabili. Ba al dago musika baino gauza hoberik haur bati *gizatiar* izaten erakusteko?”

Musika-eskoletara itzulita, horien bakardadearekin amaitu behar da; zerbitzu komunen sare batean sartu beharko lirarteke, harremanak errazteko –bai ikasleen bai irakasleen artekoak–.

Baina, esperientziak trukatzeko, heziketa-munduarentzat ez ezik, beste askorentzat ere bada gomendagarria. **Bi milioi biztanleko lurralde batean ez genuke egin behar guztia hirukoiztu aurrena eta, gero, hurbilekoarekin bakarrik geratu.** Hori egitea harremanetarako, norbera aberasteko eta kultura-ekipamenduez baliatzeko aukerak galtzea da, eta horiek **eginkizun garrantzitsua izan behar lukete, gainera, elementu integratzaile, topagune eta elkarrizketako gune gisa.**

Horregatik, oso komenigarria da ekipamendu jakin batera joan ohi den jendea EAEko beste udalerrri batzuetan dauden antzeko beste ikuskizun batzuetara joan dadin lortzeko ekimenak behin eta berriro sustatzea, joan-etorriak erraztea eta marketin-politika eta informazio-hedapen eraginkorrez laguntzea.

Halaber, kultura kudeatzeko profesionalen foroa finkatu beharko litzateke esperientziak trukatzeko, lankidetzaproiektuak aurrera eramaten saiatzeko, ekimen berritzaileak martxan jartzeko eta eskaintza hobeto koordinatzeko.

AEBetako metropolietan, adibidez, urtero kultura-ekoizpenaren eta programazioaren plangintza egiten duten adituen batzordeak daude, eta kalitate- eta profesionaltasun-irizpideei jarraiki laguntza publikoak banatzen dituzte. Hala, kultura-baliabideen aprobetxamendu hobea lortzen da, eta kalitate handiagoko ikuskizunak merkeago antolatzeko aukera dago.

Azkenik, azpimarratu nahi dut komunikabideek lan gehiago egin beharko luketela audientziak kulturaren eta musikaren arloan sentsibilizatzeko, informazioa – praktikoa eta eskuratzen erraza– didaktikarekin bateratuta. Musika klasikoak gero eta leku txikiagoa du komunikabideetan.

Nazioartean erreferentziak bilatuta, lehenik eta behin, kontrako bi eredu daudela ikusten da, estatuak eta gizarte zibilak kultura-politikan duen parte-hartzearen arabera.

Adibidez, AEBetan estatuak kulturari dagokionean zuzenean eragin ez dezan, arteak finantzatzeko sistema bat ezarri da: artearekin lotura duten jarduerak diruz babesten dituzten pertsona fisiko eta enpresei onura fiskal handiak ematea. Hori dela eta, administrazio publikoek jasotzen ez dituzten zergak kultura-aurrekontu publikoaren bikoitza baino gehiago dira.

Kultura-politika publikoaren tresna nagusia “National Endowment for Arts” da AEBetan; erakunde hori nahiko independentea da, eta fondo publikoak banatzeko erabiltzen dituen irizpideek finantziario pribatu osagarria eta kulturaren kudeaketan eraginkortasuna bilatzen dute. Britainia Handian eta Ipar eta Erdialdeko Europako zenbait herrialdetan, halaber, gizarte zibilaren parte-hartze handiagoa duten ereduak dituzte.

Beste ereduia Frantzian ezarritakoa da, eta beste herrialde latindar eta frankofono batzuek hartu dute gerora. Oinarrian, estatuak kultura-eskaintzaren eta eskakizunaren plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan parte-hartze handia du. Frantzian Kultura Gaien Ministerioaren bidez gauzatzen da lan hori. Ministerioak zuzenean kudeatzen ditu museo nazionalak, liburutegiak, trebakuntza artistikoko zentroak, antzokiak, konpainia nazionalak eta monumentu historikoak.

Azken hamarkadatan, Frantziako kultura-politikari indar handia eman dio lehendakariak, eta, nolabait, Paris kulturaren munduko hiriburu bilakatuko duten proiektu enblematikoak sustatzen aritu da. Ondorioz, ambizio handiko kultura-ekimenak jarri ziren martxan, besteak beste: Pompidou zentroa –berritu berria–, La Villette-ko gune futurista –Musikaren Hiriarekin–, Louvre handitzea, Orsay-ko Museoa, Bastillako Opera... **Kulturaren kudeaketa profesionalizatzeko egin den ahalegin paraleloari esker izan dute arrakasta ekimen horiek, neurri handi batean.** Eta fondo publikoen bidezko finantziazio-eredu hori da, hain zuzen ere, EAEn indarrean dagoena.

Batetik, Cleveland, Liverpool eta, gutxixeago, Ruhr ibaiaren arroa –eredu anglosaxoniarrari dagozkion ezaugarriak dituzte nagusi–, eta, bestetik, Akitaniako Tolosa –Frantziako ereduarekin lor daitekeenaren adierazgarri bikaina da–, izan dira bere garaian Bilborako aztertutako erreferenteak, oso antzekoak baitira.

Tradiziozko industria-oinarriaren krisiaren ondorioz, Cleveland-eko eragile publiko eta pribatuak berrindartzeko estrategia bat diseinatu eta ezarri zuten “Cleveland Tomorrow” erakundearen bidez. Erakunde horrek lehentasuneko arreta jartzen die arteari eta kulturari aberastasun-sortzaile gisa.

Estrategia horren oinarrizko elementuak hauek izan dira:

- Rock-aren eta, oro har, musika modernoaren historiaren objektuen bilduma onenetako bat biltzen duen kulturgunea martxan jartzea.
- Marketin-politika eraginkorra izatea, tokiko eta nazioarteko komunikabideen laguntza duena.
- Kulturguneko zuzendari izateko Dennis Barrie kontratatzea, AEBetako kultura-kudeatzaile ezagunenetakoa bat.

Liverpool hiri ingelesa portuaren eta portuarekin lotutako industria-jardueren krisiaren ondorioz gainbehera zetorren, eta Liverpool Tate Gallery ezarri zen aro viktoriarreko biltegi batean. Museo berriak hirukoiztu egin zuen aurreikusitako bisitarien kopurua. Hauek dira arrakastaren oinarriak:

- Erakusketak kalitate handikoak eta berariazko museo-politika dutenak.
- Didaktikaren aldeko apustua.

Museoko didaktika-sailaren aurrerapenetako bat da **erakusketak, askotan, eskoletako eta unibertsitateko curriculumetan integratzen direla. Gainera, ohiko zaintzaileak arte-informatzaile bilakatu dira; gaitasun pedagogikoa eta artearen historian trebakuntza handia dute.**

Tolosari dagokionez, joan den hamarkadan, Frantziako bigarren kulturgune bilakatu zen; arrakastaren oinarriak hauek izan dira:

- Udala da aitzindaria.
- Kultura hedatzeko estrategia arrakastatsua du: ikuskizun bakar batean hainbat arte-adierazpen sartzeko joera berezia du (musika, antzerkia eta arte plastikoak, besteak beste).

Adibidez, Organo Jaialdian, musika-tresna horren mundu mailako bildumarik onenetako bat duenez, hiriko eliza eta komentuetan, musika-jardueraz gain, argazki-, marrazki- eta bibliografia-erakusketak dituen kultura-ikuskitzuna antolatzen du, bai eta hitzaldi eta eztabaidak ere.

Baina Ruhr-en arroan –garai batean Alemaniako ikatzaren, altzairuaren eta siderurgiaren gunea–, gaur egun, maila handiko arte-birmoldaketa sustatzen hasi dira; horretarako, funtsean, sorkuntza-proposamen batzuen esparru gisa, industria-arkeologia ospetsutik bizirik dirauten guneak erabiltzen dira. Pertsonalki, horrek eragiten dit, hain zuzen ere, miresmen eta ikusmin handiena, une honetan.

Dagoeneko, laurogeita hamarreko hamarkadatik, martxan dago eskualde horretan tradiziozko industria-irudia artearekin eta kulturarekin lotutako beste irudia batez ordeztzeko anbizio handiko estrategia. Estrategia horren oinarria "Verein pro Ruhrgebiet" eta antzeko erakundeen bidez (Bilbao Metr poli-30en antzekoa) gauzatutako lankidetzak publiko-pribatuak estua da; erakunde hori eskualdea berrindartzeko konpromisoa duten 250 enpresek osatzen dute.

Irailan, Ruhr-eko Triennale jaialdia hasi zen. Erronkari aurre egiteko Gerard Mortier kontratatu dute, Salzburgeko Jaialdia zuzentzen hamarkada bat egin ondoren. Bi jaialdien arteko distantzia fisikoa baino askoz ere handiagoa da. Distantzia horrek bereizten ditu, hain zuzen, sona handiko jaialdi bat eta espazioa ausarki erabiltzen duen utopia kulturalaren ideia bat; betiko maisulanak espazio horietan berpizten dira, baina **beste zenbait bizigarri sortzen dituzten testuinguruetan, eta, batez ere, espirituaren abentura horretan parte hartzeko gogoak duen publiko berri bati zuzenduta**. Salzburgeko xarma bukolikotik industria-nabeetara, ikatzezko mendietara edo gasometroetara igarotzea, eta **erraztasun artistikoari amore ematen ez dion** publikoa erakartzea erronka handia da.

Ruhr-eko I. Triennale jaialdia 2002, 2003 eta 2004an garatuko da, urteko hainbat hiletan: antzerkia da nagusi uda aurreko sasoiak eta musika eta opera uda ondoren.

Oraingoz jakina da eszenako zuzendari onenek parte hartuko dutela, besteak beste: Peter Brook, Patrice Chereau, Robert Wilson, La Fura dels Baus, Peter Sellars, Marthaler, Gr ber, Pina Baus koreografoa... Eta guretzako ezagunak diren artista-mordo batek ere hartuko du parte, besteak beste: Agust n Ibarrola, Donostiako Orfeoia, Orquesta Sinf nica de Galicia, La Fura dels Baus, Mar a Bayo, Eduardo Arroyo, Imanol eta ziurtatu gabeko besteren bat.

Jaialdiaren hasieran parte hartu dute dagoeneko horietako askok, Donostiako Orfeoia edo Mar a Bayo, esate baterako. Imanol abeslariak, halaber, txalapartaren laguntzaz kantatu zuen Halde Haniel ikatzezko mendiko aire zabaleko antzokian. Kantaldi horrekin mendiaren puntan instalazio bat inauguratu zen, eta apaingarri eszenografiko iraunkorrerako balio izan zuten Ibarrolak eskultura bilakatutako ehunka trenbide-trabesek.

Ikuskizunak, aurten, 8 hiritako 13 leku desberdinetan izan ziren; eta, datorren udaberrian, Bochum-eko nabarik handi eta deigarriena erabiliko da, besteak beste, La Fura dels Baus-en Xirula Magikoa –Mozart– muntaiaren emanaldirako. 2003an, bestalde, Oberhausengo gasometroa erabiliko da, kantu gregorianoarekin eta musika minimalarekin girotutako Bill Violaren bideo-instalazio bat erakusteko.

Ruhr-eko Triennale jaialdiak, nolahi ere, ikuskizunak planifikatzeko esparruan zenbateraino berri daitekeen frogatzeko balioko du.

Halaber, ekimen zehatzagoren bat ere aipatuko dut, besteak beste, eskaera pizteko balio dezaketelakoan.

Alemanian, musika entzuteko artea lantzeko institutua dago, entzulearen eskola da, eta Kontzientziaz Entzuteko Nazioarteko Eskola du izena. Zentro hori St. Peter-en dago, Oihan Beltzean; gaiaren inguruko nazioarteko biltzarrak antolatzen ditu, eta mintegi ugari ematen ditu Europan, AEBetan, Mexikon eta Venezuelan.

Hemen inguruan, 95ean antolatu zen Valentziako Unibertsitatean (ez dakit gero beste mintegirik antolatu duten edo ez). Horretarako, Balan –aipatutako eskolako lehendakari eta sortzailea– eta Frike –eskolako zuzendaria– irakasleak gonbidatu zituzten. Mintegiaren izenburua “Musika kontzientziaz entzutea, entzunaldi sortzailea” izan zen eta interaktiboa izan zen, alegia, ikusleek une oro parte har zezaketen.

Soinu-adibide gisa, Fr. Schubert-en **Dontzeila eta Heriotza** hari-kuartetoa aztertu zen. “Kontzientziaz entzuteko” metodoa aplikatzeko praktika gisa erabili zen obra hori. Ikastaroaren amaieran, obra oso sakon ezagutzen zen eta metodoa edozein musika-obran erabil zitekeen.

Mintegian, hari-kuarteto profesional batek jo zuen obra. Mintegiak 20 ordu iraun zuen, eta ikasleentzat ez ezik, publiko osoarentzat irekia zen. Amaieran, joan izana eta aprobetxatu izana ziurtatzen zuen diploma eman zitzaien, eta unibertsitateak 2 kredituko balioa eman zion.

Mintegiaren zuzendari Balan irakaslearen, iritziz **“musika kontzientziaz entzutea arte bat da, eta melomanoari berari sortzaile bihurtzeko aukera ematen dio. Musika-sorkuntzaren azken ukitua da”**.

Eredu aipagarria da Londresko “Royal Festival Hall” kontzertu-aretoa, oso jarrera irekia eta eroso baitu (gune berean daude “Queen Elizabeth Hall” eta “Purcell Room” areto txikiagoak); eraikineraz sartzeko ateak irekita daude sartu nahi duen ororentzat. Emanaldi-aretoetara sartzean, sarrerako txartela baino ez da erakutsi behar. Eraikuntzaren gainerako lekuetan –ez dago ia leku itxirik–, kafetegia, autozerbitzua, jatetxea daude; CDak, bideoak eta musikari edo poesiarik buruzko liburuak eros daitezke. Gainera, poesia-liburutegiak Braillean idatzitako liburuak ere baditu. Denboraldiko programazio zabala banakako programen arabera ordenatuta dago, eta, halaber, nahi duenak eskura dezake. Gorpildun aulkia behar duten pertsonentzako, ibiltzeko arazoak dituztenentzako, itsuentzako (eta horien zakurrentzako!), bai eta gorrentzako ere –infragorri bidezko gailuak dituzte– sarbideak eta erraztasunak daude.

Heziketa-programak oso interesgarriak dira, gazte-taldeak ikus daitezke gaur egungo ospe handiko konpositoreekin lanean edo pertsona helduen taldeak olerkari batekin batera antologia bat egiten, adibidez.

Han, askotan, janzkera eta adin ugari ikusleak aurki daitezke, gazteak batez ere, ganbera-musika edo jazz edo folk talde txikiei arretaz entzuten, zain dauden bitartean edota kafe bat hartzen duten bitartean.

Munduak oso ekimen berritzaileak daude, metodo pedagogiko berriak eta teknologiaren aurrerapenak erabiltzen dituztenak. Kasu horixe da, hain zuzen ere, Toda Machover konpositorearena. Massachusetts-eko Institutu Teknologikoko (MIT) irakaslea da, eta irudiak (zirriborroak ere bai) soinu bilakatzeko programa bat diseinatu du. Hyperscore programa doan aurki daiteke sarean, eta lerroen, ehunduren eta koloreen bidez musika idazteko aukera ematen du.

Programa hau “Jostailuaren Sinfonia” proiektuaren zati bat da; proiektu horretan, jotzeko gaitasun berezirik behar ez duten musika-jostailuak sortzen dira. Machover-en iritziz **“Proiektuaren ideia musikari profesionalen eta haurren arteko zubia egitea da; erabat aldatu nahi dugu haurrek musikaren munduan sartzeko modua”**.

Yehudi Menuhin Fundazioak sustatutako MUSE programa ere ideia interesgarria da: **balioak ezartzeko tresna gisa erabiltzen ditu arteak**. Proiektua Menuhin maisuak –biolin-jole handia eta giza eskubideen defendatzaile sutsua– sortu zuen, Werner Schmitt-en laguntzaz –Bernako Kontserbatorioko Musika-eskolako zuzendaria–. Zoltán Kodály-k musika-heziketari buruz zituen kontzepzioak izan zituzten oinarri, bai eta gizarteak baztertutako ikasleei buruz Suitzako eskoletan egindako azterketak ere. **Proiektua bultzatzen duen filosofiaren helburua da, arteak eta, batez ere, musika guztiok eskuratu beharreko heziketa orokorraren zati direla ulertzeaz gain, horiek tolerantzia, desberdinekiko eta gutxiengoekiko errespetua, proiektu komunetan sartzea eta horiek bezalako beste hainbat balio txertatzeko tresna gisa erabiltzea**.

Jatorrizko metodologia pedagogikoa eta artistikoa antzerki, dantza, musika eta arte plastikoetako tailerren bidez egiten da; eta trebakuntza artistikoa eta esperientzia pedagogiko handiko artistek eta irakasleek ematen dituzte eskolak. Programa 94tik ari dira garatzen Europako hamabi herrialdetan, eta 10.000 haur baino gehiagok hartzen dute parte jardueretan. Espainian 96an eta 2000an hasi zen, eta atsegin handiz hartu nuen (fundazioko patronatuko kidea bainaiz) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gure proposamena ontzat hartu izana. Euskal Autonomia Erkidegoko lau zentrotan jarri zen esperientzia pilotua martxan, bat Gasteizen eta hiru Bilbon, eta oso emaitza onak lortu ziren.

Ildo beretik, Barenboim-ek 99an sortu zuen “West Eastern Divan” orkestra; Asturiasko Printzearen saria eman diote horregatik eta horrela definitzen du berak: “West Eastern Divan proiektu kultural eta humanitarioa da. Musikak ez ditu gatazkak konpontzen, baina Israelgo eta Ekialde Hurbileko herrialdeetako gazteei **zaletasun berbera partekatzeko aukera ematen die, eta hori ideiak partekatzeko baina sendoagoa da**.

Gazte arabiar bat eta judu bat atril berdinaren aurrean eseri eta, une berean, nota bera jo dezaten lortzea, lehen aldiz zerbait positiboa partekatzeko aukera ematea da. **Horrelako gauzek ez dituzte arazo politikoak konpontzen, baina gatazkak bizi ditugunok aldatu egiten gaituzte.**” (Barenboim)

Musikaren egoerari buruzko hausnarketarekin jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen musika-eskaintza aztertuko dut.

Ez ditugu kontuan hartuko –ekimen pribatua baita– inolako diru-laguntzarik gabe jada ehun urte bete dituen Bilboko Elkarte Filarmonikoaren programazio bikainak eta funtzionamendu eredugarria, bere horretan, Europako erreferentziatzat hartzen baita.

Gure musika-egoeraren beste gailurretako bat Donostiako Musika Hamabostaldia da, Eusko Jaurlaritzaren laguntza handia duen jaialdia, baina ez soilik horrena. Jaialdi hau eredugarria da, bai babesle publiko eta pribatuen eskutik jasotzen duen euro bakoitza optimizatzea lortzen duelako, bai eta aurkezten dituen ikuskizunen kuantitatearen eta kalitatearen ondorioz. **Eta ez da harrizkoa, erakunde biek oso maila altuko kultura-kudeatzaile bana izatea buruan.**

Bilboko udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lehen mailako ikuskizunak ekartzen dituzte, Kurasaalean ez bezala –horren kudeaketa eta programazio artistikoa Kurasaal Fundazioak antolatzen du (publiko-pribatua)–, Euskalduna Jauregiak ez baitu programazio artistikorik.

Operaren denboraldiari dagokionez, beste azterketa batzuekin hasi baino lehen, adierazi beharra dago operak musikaren munduan atal berezi bat betetzen duela, jende askok hartzen baitu parte. Anthony Storr-ek hau dio “Musika eta gogoa” gaiari dagokionez: “Letra duten beste musika batzuekin alderatuta, operak maila berezia izaten segitzen du. Maila hori hain berezia da batzuetan ezen, operan interesik ez duten pertsonetan edo bestelako musika-motekin (sinfoniak, kontzertuak, ganbera-musika, liederra, musika sakratua, etab.) hunkitzen ez diren pertsonetan ere entzuteko gogo bizia sortzen duela”. Bestela esanda, ikus daiteke Filarmonikaren ikuskizunetan izan ohi direnak operan ere izaten direla, baina alderantziz gertatzea askoz ere arraroagoa da.

Bestalde, BOLE Bilboko Operaren Lagunen Elkartea erakunde pribatua da, oso finkoa eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa jasotzen duena. Antolatzen dituzten ikuskizun guztietara jende-mordoa joan ohi da beti. Kalitate desberdineko abeslariak eta produkzioak aurkezten ditu, eta batez beste emaitza onak lortzen ditu. Kasu honetan, guztietan bezalaxe, **emaitzen ebaluazioa eta segimendua egiteak jasotzen dituzten diru-laguntzak hobeto aprobeztatzeko aukera emango lieke.**

Bestalde, bi orkestra sinfoniko dauzkagu: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa. Lehena 1982an sortu zen, **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatu, garatu eta finantzatu zuen.** Bigarrena 1922an sortu zen eta **aurrekontua bizkaitarrek ordaintzen dute oso-osorik Udalaren eta Foru Aldundiaren bidez; ez dute Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jasotzen, baina, alderantziz, bizkaitarrek Euskadiko Orkestra Sinfonikoa finantzatzen laguntzen dute, zergen bidez.**

Bidegabekeria horrek, iraganean, tira-birak sortu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Bizkaiko administrazio publikoen arteko harremanetan, eta, gainera, bi orkestren artean ez dago ez lankidetzarik ez koordinaziorik. Garai batean, arazoa konpondu nahi izan zen, baina, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Batzorde Artistikoari txosten bat eskatu ondoren, eta beste txosten bat aditu-talde bati eskatu ondoren, gaia bertan behera gelditu zen, konpondu gabe. Harrigarria da talde politiko berdineko kideak izan arren, Eusko Jaurlaritzako zein Bizkaiko administrazioko kultura-sailetako arduradunek arazoa konpontzeko biderik ez topatzea. Arazoari aurre egitea komeni da, proiektu integratzailea izango baita, besteak beste, eta ez dugu horrelako askorik gure inguruan.

Bi orkestrak egoera onean daude, bakoitza bere mailan. Bilboko orkestraren zuzendaritza artistikoa Menaren esku dago eta Euskadiko orkestrarena, berriz, Vargaren eskuetan, Mandealekin batera. Euskadikoan, gainera, kontsultak egiteko Batzorde Artistikoa dago eta oso aldi behin egiten dituzte bilerak. Zuzendari artistiko bien lana oso ona bada ere, orkestra zuzentzen duten presentzia fisikoa desberdina da: denboraldi honetan, Bizkaiko Orkestra Sinfonikoak emango dituen 19 kontzertuetatik Menak 9 zuzenduko ditu eta, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldiari dagokionez, 19 kontzertuetatik 2 baino ez ditu zuzenduko Vargak eta 3 Mandealek.

Egiten den eskaintzaren barnean, ezin ahantz dezakegu gure herrialdean musika koralak duen garrantzia, eta horren barnean, Koruen Federazioak duena, hain zuzen ere.

Dagoeneko zaharkitu egin dira “hiru euskaldunek orfeoi bat” eta antzeko esaldiak, edota Voltairek euskaldunei buruz esaten zuena: “kantatzen eta dantzatzen duen herria”. Halaber, garai bateko euskal konpositoreek koru trebatu eta gaitu ugari zituzten inguruan, egiten zituzten kantak abesteko. Horregatik, hain zuzen ere, ia euskal konpositore guztiek koruetarako obrak sortu izan dituzte; oso erreperitorio zabala eta kalitate handikoa sortu dute. Euskal Herrian koruak izugarri zabaldu ziren, eta horrek, aurrez tradiziozko kanta-materialak bildu ondoren, erabiltzeko aukera eman zuen, eta musika sozializatzeko aukera ere eman zuen.

Koruen jardueraren beherakadaren ondoren, euskal erakundeek emandako laguntzaren eta zenbait talderen ekimen eta ahaleginaren ondorioz, 70-80ko hamarkadetan, jarduerak gora egin zuen berriro. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako koruen federazioak eta Euskal Herriko Koruen Federazioa sortu ziren. Une horretan, koru asko federatu baziren ere, bistakoa da bere horretan geratu zirela maila artistikoari zegokionez.

Gure herrialdeko koru-lehiaketa garrantzitsuena Tolosakoa da; 1969an sortu zen eta urtero antolatzen da, azaroaren hasieran. **Lehiaketa horrek nazioarteko izen handiko epaimahaia du, eta munduko koru-lehiaketa garrantzitsuenetako bat da, kalitatearen alde egiten duen apustuarengatik.** Beste onura batzuez gain, lehiaketan ikusi da, **zalantzarik gabe, koruak errentagarriak direla kultura sustatzeko eta gero eta garrantzia handiagoa duen turismoa erakartzeko.**

Eta, hori kontuan hartuta, Euskal Herriko Koruen Federazioak, CITeko arduradunen laguntzaz, Euskal Herriko koruen musika (mota guztietakoak) zabaltzen eta bultzatzen du.

Hasiera-hasieratik konturatu ziren hainbat eskola eta teknika konparatu behar zirela eta ordura arte koruek zuten errepertorioa zabaldu eta berritu behar zela, **euskal koruek –tradizio handikoak– zituzten gabeziak gero eta nabarmenagoak baitziren, lehiaketan parte hartzen zuten nazioarteko koruekin alderatuta**. Horretarako, konposizio-lehiaketak eta koru-zuzendariak trebatzeko lehiaketak antolatu zituzten.

Baina, bestalde, ez du ezertarako balio errepertorio egokia –kalitatez zein kantitatez– izateak, ez eta zuzendariak birziklatzeak ere, koru gehienek trebakuntza eta gaitasuna hobetzen ez badira, alegia, **ahots- teknika, eskolan musika-pedagogia eta haurtzarotik kantariaren trebakuntza eguneratzen ez bada**.

Geldialdi horren froga dira, adibidez, Bizkaiko Koruen Federazioak antolatzen duen “Udaberriko Kontzertuak” zikloa edo Begoñako abesbatzen lehiaketa; horietan, errepertorioak askotan erabiliak dira eta parte hartzen duten abesbatza gehienek ahots-teknika kaxkarra da. Mailaren eta errepertorioaren arabera sailkapenik ere ez dago, oso abesbatza desberdinak nahasten dira eta denbora oso mugatua dute (hiru koruk kantatzen dute kontzertu bakoitzean); hartara, emaitza kaxkarrak lortzen dira.

Bestalde, beste erakundeek babesten dituzten zikloetan ebaluaziorik ez dago, eta ebaluazioak egitea beharrezkoa da kalitatezko koru-musika lortzeko. **Gai horretan sakontzea komeni da**.

Hementxe amaituko dut hausnarketa. Ez nuke zehaztasun gehiago eman eta ekintza puntualetan sartu nahi, azterketa sakonik egin gabe eta aipatu ditudan eremuetan iritzi gehiago entzun gabe. Hala ere, hausnarketa honetan, nahiko gomendio, helburu eta jardueren-ildo proposatu ditut, eskaera finkatu eta berrituko eta eskaintzaren kalitatea hobetuko duen trebakuntza-maila egokiagoa lortzeko.

Izan ere, nire iritziz, kalitatea, profesionaltasuna, irudimen berritzailea eta pertsonak dira proiektuak eta, kasu honetan, kultura-proiektu arrakastatsuak bultzatzen dituztenak (hainbat adibidetan ikus daitekeenez). Gainera, praktikan, uste dut helbururik egokienak negatibo bihurtzeko arriskua dagoela, horiek ebaluatzeko segimendurik egiten ez bada, bederen.

Eta azkenik, nire ustez, oso garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko musika-egoera hobetzen laguntzea, Storr-ek aipatzen duenaren ildotik: “musikak bizitza goratzen du, hobetu eta zentzua ematen dio. Melomanoentzat musika erreferentzia-puntu iraunkorra da, ustekabez betetako mundu honetan. Musika adiskidetze-iturri bat da, poz-eta itxaropen-iturria, eta ez du inoiz huts egiten”.

Kudeaketa profesionala. Proiektuen garapenen eta emandako diru-laguntzen erabilera egokiaren segimendua eta ebaluazioa egin. Haurtzarotik trebakuntza hobetu. Informazioa zabaltzeko eta trebatzeko politika eraginkorra, eskaera piztuko duena. Horiek guztiak arrakasta lortzeko oinarrizko puntuak dira, batez ere, emaitza onak lortzeko puntuak.

<< Musika >>

B: J. A. Echenique – G. Ormazabal – L. F. Rupérez

Área 2- Creación y Expresión Artística

2. Arloa: Sorkuntza eta Espresio Artistikoa

(Euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

SARRERA

Gizarte gutxitan dago euskaldunena bezain ondare eta bizitza musikal aberats eta dinamikoa. Antxieta, Mateo Albeniz edo Arantzazuko Eskolakoak bezain konpositore ospetsuetaraino jo gabe, edota Arantzazuko liburutegi eta artxibategi zahar eta ospetsuetaraino jo gabe, edota eliza askotan dauden organo barrokoen bilduma bikainetara jo gabe, nahitaezkoa da kontuan izatea musikaren bizitzari XIX. mendearen amaieran eta XX.ean eman zaiola bultzadarik handiena –betiere musika klasikoan oinarrituta–.

Talentu handiko konpositore ugari azaldu ziren, musika tradizionalen oinarrituta, garai hartako Europako joera berritzaileen ukitua zutenak. Horrek odolberritzea ekarri zion euskal musikari eta gure mugetatik kanpo musika hori hedatzen lagundu zuen; izan ere, horien konposizioak Europa osoan jotzen eta estimatzen ziren.

Gainera, XIX. mendearen amaieran eta XX.eko lehen erdian, maila handiko musika-elkarte eta -erakunde ugari sortu ziren: orkestra sinfonikoak, abesbatzak eta orfeoiak, elkarte filarmonikoak, musika-jaialdiak, opera-denboraldiak, etab. Horiek guztiek munduan garai hartan egiten ari zen musikaririk garrantzitsuenak ezagutzeko ez ezik, musikaren izar ospetsuenak ere ezagutzeko aukera eman zuten.

Alabaina, XX. mendearen 80ko hamarkadatik aurrera, demokrazia berriz ezarri zenean sortutako erakunde politikoek ahalegin handia egin zuten, nolabait, tradizio handiko historia zuten musika-elementu guztiak koordinatzeko, ordura arte, emaitza kaxkarrak eman baitzituzten. Horretarako oso baliagarria izan zen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Eresbil sortzea, auditorioak eta goi-mailako irakaskuntza-zentroak eratzea eta diru-laguntzak –behar-beharrezkoak jaialdiak antolatzeke, ikerketa-zentroetarako, etab.–.

Lerro hauek ez dira Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun, musika klasikoak duen egoerari buruzko hausnarketa bat besterik. Oinarrizko bi alderditan jarri da arreta: musikaren hedapena eta sorkuntza.

Alderdi horietan, batez ere, egin dezake Kultura Sailak lan eraginkorragoa eta probetxugarriagoa, betiere kontuan izanik, gero ikusiko denez, musikarekin lotura duten Hezkuntza Sailari dagozkion arazo garrantzitsuak daudela.

Hausnarketa horiek txertatzeko, EAEn gaur egun musikarako dauden ekipamenduen egoerari eta musika-emankizunetara doazen entzuleei buruzko azterketa egin da.

MUSIKARAKO EKIPAMENDUAK

Denboraldi labur batean –1999tik 2002ren amaiera arte, gutxi gorabehera– EAEn musika jotzeko eta entzuteko aukera ez ezik, musikarekin lotura duten beste jarduera ugari garatzeko aukera ere ematen duten eremu berri asko sortu dira.

Horrela sortu ziren Bilboko Euskalduna Jauregia, Donostiako Kursaal Zentroa, Eresbilen (Musikaren euskal artxibategia) egoitza berria Oreretan eta Goi-mailako Musika Ikastegia (Musikene) Donostian. Horiez guztiez gain, lehendik dauden antzokiak aipatu behar dira: Arriaga eta Victoria Eugenia (gaur egun konponketa handiak ari dira egiten), Gasteizko Printzipala, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitza, bai eta EAeko hiru hiriburuetako kontserbatorioak ere. Oraindik proiektua besterik ez bada ere, aipatu beharra dago Auditorioa eraiki nahi dela Gasteizen 2006rako.

Derrigor aipatu behar da, bestalde, musikarako espazio bereziak sortzeko egindako ahalegina. Lehen, gure hirietan antzokiak, elizak, kiroldegiak eta plaza publikoak auditorio gisa atontzen zituzten, eta horietan hala-nolakoak izaten ziren akustika edo ikuspena.

Ekipamendu berri horiek guztiek, zalantzarik gabe, duela bost urteko egoera asko hobetu dute. Hala ere, gogorarazi behar da aipatutako batzuk ez direla espero zen bezain eraginkorrak, batez ere, Kursaal auditorioa, arte eszenikoetarako (opera eta baleta) mugak baititu.

Zentro horiek, halaber, programazio-erakunde berriak sorrarazi dituzte, Kursaal Fundazioa eta Cultural Alava –auditorio berria inauguratu arte, Gasteizko Printzipal antzokian kontzertuak antolatzen ditu–, esate baterako. Bi kasuetan aipatu eta nabarmendu behar da erakunde horien denboraldietako programazioak ekimen pribatuaren babesarekin (hamar enpresa Kursaal Fundazioan, eta Caja Vital aurrezki-kutxa Cultural Alavan). Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundia bera funtsezkoa da, Euskalduna Jauregian kontzertuak edo opera-emanaldiak antolatzen baititu, BOLEak berak antolatzen dituen gain.

Euskalduna Jauregia eta Kursaal Auditorioa inauguratu baino lehen, musika-antolatzaileak (jaialdiak, orkestrak, etab.) kezkatuta zeuden, areto berrien toki guztiak bete behar zirelako. Hori dela eta, gizartearekiko lan handia egin zen, areto horietako lekuak ahalik eta gehien betetzeko. Eta ikusleek ongi erantzun diote lan horri. 1999an Euskalduna Jauregia eta Kursaal Zentroa inauguratu zirenean, kontzertuetarako harpidedun berri ugari egin ziren eta jende askok hartu zuen parte horietan; garai hartan, une batez pentsatu zen ikusle berrien kopuru handi hura auditorio bien berritasunaren ondorio zela.

Hala ere, hiru urte igaro ondoren, eta berritasuna galdu delarik, zaletuen kopurua ez da jaitsi, alderantziz, gora egin du. Kontzertuak antolatzen dituztenen erronka maila horri eustea eta, etorkizunean, ahal bada, kopurua handitzea izango da, eta horretarako, publiko berria erakarri beharko dute.

PUBLIKOAREN ARAZOA

Azken urte hauetan, kontzertuetara doan jende-kopurua txikitzen ari dela ikusten da mundu osoan.

Beherakada hori bistakoa izan arren mundu osoko musika-zentro garrantzitsuetan (Londres, Paris, New York, etab.), ez da hain nabarmena EAEn. Baliteke, aipatutako aretoak eraiki ondoren, horiek ezagutzeko eta horietan programatzen diren ekitaldietara joateko irrika duen populazioaren zati bat erakarri izana.

Gainera, beherakada hori nabarmenagoa da publikoaren adina handitu ahala. Horrek esan nahi du gazteenek ez dutela musika klasikoko kontzertuetara joateko joera handirik. Baliteke hori Hezkuntza Sailak sakon aztertu beharrekoa izatea, lehen mailatik unibertsitateraino ematen den musika-trebakuntzari dagokionez.

Egia da gizartearen segmentu hori erakartzeko ahaleginak egiten direla. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak denboraldi bakoitzeko 10 kontzertu didaktiko eskaintzen ditu lehen ematen ez zituen hiriburuetan (Gasteiz eta Donostia), eta arrakasta handia izaten du. Gainera, orkestra horrek 700 harpidedun ditu musika-eskoletako eta kontserbatorioetako ikasleen artean. Bilboko Orkestra Sinfonikoak, halaber, 5 kontzertu didaktiko eskaintzen ditu denboraldi bakoitzean.

Musika klasikoko kontzertuetara ikusle berri eta gazteak bideratzeko, hausnarketa- eta lan-foro bat antolatzea –programatzaileak, hezitzaileak, musikariak, soziologoak eta abarrek parte hartuko dute– proposatzen diegu Kultura Sailari eta Hezkuntza Sailari.

Bestalde, komeniko litzateke sailak kontzertuetako sarreraren prezioak bateratzeko politika sustatzea. Gaur egun, prezio-diferentzia handia dago antzeko kontzertuen artean, batez ere, Bilbon eta Donostian. Eta horrek desitxuratu egiten du bi hirietako publikoen egoera.

Kursaal Fundazioa eta Musika Hamabostaldiak, urtean, bi kontzertu didaktiko ematen dituzte.

Entzule-kopuruaren beherakada areagotu egiten da, programatutako obrak berriak badira. Erabateko estreinaldiak edo sortu berri diren konposizioak aurkezten direnean, aretoetako leku ugari hutsik izaten dira. Soziologiaren ikuspegitik, aipatu behar da fenomeno hori musikaren arloan baino ez dela gertatzen. Beste arte-mota batzuei dagokienez, batez ere, literatura, antzerkia, zinema edo arte plastikoak, ikusleak estreinaldietara eta sortu berri diren obretara joaten dira nagusiki, eta ikuskizunak berriz ematen direnean edo berriz estreinatzen direnean ez da hainbeste ikusle izaten.

Funtsezkoa da prozesu hori mantsotzea; askoren ahalegina eskatzen du horrek eta Kultura eta Hezkuntza Sailetako oso sektore desberdinek hartu beharko dute parte –Kultura eta Hezkuntza Sailek–, belaunaldi gazteak gure garaiko musikan trebatzen eta hezten. Musika-programatzaileek, halaber, musika berrien ziklo berriak (argibideekin) antolatu beharko dituzte. Beraz, irtenbidea publiko berriaren interesa piztetik eta erakartzetik etorriko da.

Kontzertu-mota horien ikusle-kopuruaren beherakadaren beste arrazoietakoa bat komunikabideek ematen duten informazio eskas, pobre eta zatikatua izan daiteke.

Arrazoi askoren ondorioz gal daiteke pixkanaka ikuslegoa, baina, gure iritziz, horietako bat informazio falta da (eta ez da tontakeria bat). Kontzertuei buruzko informazioa hain da zatikatua eta tokikoa ezen, Gipuzkoako zaleek ez dakitela, askotan, zein den Bizkaiko edo Arabako programazioa, eta alderantziz. EITBk –beste komunikabide pribatu batzuk kontuan hartu gabe– EAEn antolatzen diren kontzertuei, operari eta balet-emanaldiei buruzko informazio zabala eskaini beharko luke, eta, are gehiago, kontzertu horietako askok Eusko Jauriaritzaren diru-laguntza badute (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, BOLE, Musika Hamabostaldia, Musikaste, etab.).

BOLEri dagokionez, Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko opera-denboraldiari diru-laguntza ematen dionez, ikuskizunetako bat (asteburuko bat, hain zuzen ere) goizago ipini beharko litzateke. Gaur egun ikuskizunak gaueko 23:00etatik aurrera amaitzen dira, eta jendeak Donostiara, Gasteizera eta beste leku batzuetara itzuli behar du. Goizago egiten diren ikuskizun horiek –*matinée* izena dute– emaitza onak dituzte Bartzelonako Liceuan, Parisko Operan, New Yorkeko Metropolitanan, Vienako Operan, etab.

HEDAPENA

Musika zuzenean

EAEn bi orkestra egonkor daude (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa) eta beste batek jarduera etena du (EGO edo Euskal Herriko Gazte Orkestra).

Lehenak, gaur egungo harpidetza-denboraldian 12 harpidetza-programa eskaintzen ditu Donostian, Gasteizen, Bilbon eta Iruñean; eta horiez gain, beste hiru programa ditu gonbidatutako orkestren kontura. Orkestra Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du zuzenean (haren mendekoa da). Bilboko Orkestra Sinfonikoak, halaber, 18 programa eskaintzen ditu Bilbon. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak finantzatzen dute (haien mendekoa da).

Bi orkestretarako adina ikusle badagoela frogatu daiteke, eta horien harpidedun-kopurua da horren adierazgarri. Ondorioz, bi orkestrak indartu egin behar dira. Baina, balia bideak optimizatu eta proiektu horietarako finantziario egokia bilatu behar da.

Atsegin handiz hartu zuen jendeak EGO sortzea, etorkizunean bi euskal orkestren eta besteen atrilak betetzeko musikari gazteen gunea zelako. Alabaina, denborarekin, eta lehen denboraldien ondoren, ikusi da orkestraren proiektu artistikoa eta antolamendua gelditu egin dela, eta ez dela gai sortu zenean esleitu zitzaizkion helburuak lortzeko.

Halaber, abesbatzen gaia kontu handiz landu behar da. Zorionez, EAEko abesbatzak eta, batez ere, gipuzkoarrak, egoera onean daude. Dena dela, komeni da haurren eta gazteen abesbatzei –garai bateko eskolania eta parroketako koruen ondorengoak– laguntza berezia ematea; horietan parte hartzen duten pertsona nabarmenek, gero, abesbatza garrantzitsuetan sartzeko aukera izan dezaten. Hori Euskal Herriko Abesbatzen Federazioen bidez gauzatu beharko litzateke, eta, horrek, halaber, haur-abiesbatzen eta eskolanien zuzendariak trebatu beharko litzuzke.

Euskal musika hedatzeko beste moduetako bat diskoak argitaratzea da. Orain arte, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak anbizio handienaz ekin dio euskal konpositoreen diskoak grabatzeari.

Hala ere, badirudi Eresbilek izan behar duela zein partitura eta autore grabatu behar diren erabakitzeko irizpideak ezarri behar dituen. Eresbilek Euskal Herriko musika-ondarea berreskuratzeko egin duen ahalegina zoragarria da; eta, horregatik, hain zuzen ere, izan beharko lituzke edizio inprimatua eta horri dagokion musika-materiala martxan jartzeko baliabide handiagoak. Izan ere, gaur egun artxibatuta ditu obra ugari, batzuk egoera txarrean eta beste zenbait ia irakurri ere egin ezin direnak.

Jaialdiak beti izan dira egokiak musika-zaletasuna zabaltzeko, baina baita gure musika-ondarearen musika zabaltzeko ere, kritiko ugari erakartzen baitituzte eta komunikabideetan izugarri islatzen baitira. Dena dela arazo konplexua da: zenbat eta handiagoa izan aurrekontua, orduan eta handiagoa izango du ospea ere; beraz, oihartzun handiagoa izango du eta gehiago zabalduko da. Eusko Jaurlaritzaren partaidetza dute Musika Hamabostaldiak eta Musikastek (Eresbilek antolatuta). Biak indartu beharko lirateke dituzten helburuak betetzeko, batez ere, Musikaste; gainera, zoriontzekoa da Musikastek euskal musikaren ondarea ikertzeko eta zabaltzeko egiten duen lana, eta are gehiago kontuan izanda aurrekontu txikia erabiltzen duela.

Euskal musika eta musikariak zabaltzeko, egokia litzateke British Council-ak bezala egitea, alegia, EAEtik kanpo antolatutako kontzertuetarako diru-laguntzak ematea, artistek euskal konpositoreen musika jotzen dutenean.

Alderdi horretatik, Kultura Sailak politika hau bultzatu beharko luke kabinetean: abantailak eskaini beharko litzaizkieke zergen esparruan musika-proiektuak diruz laguntzen dituzten enpresa pribatuei. Oso baliagarria litzateke Mezenasgo Lege zabal bat (areagotzen doana) kulturaren eremuan, oro har, eta musikaren eremuan, bereziki.

Horrela, EAeko Organoaren Astea berreskuratu beharko litzateke, Foru Aldundien laguntzaz. Jada desagertuta dagoen jaialdi horren helburua EAeko organo-ondarea zabaltzea zen; izan ere, ondare hori Europako aberatsenetakoa da eta, neurri handi batean, oso ongi berriztatu da.

Sailak musika zaharrari laguntzeko politika bat koordinatzea komeni da, eta, batez ere, ganbera-musika –garai batean, Elkarre Filarmonikoek betetzen zuten esparru hori–.

Gaur egun, Gasteizkoa desagertu egin denez eta Donostiakoak bazkideak galdu dituenek, Bilbokoak baino ez du musika-mota hau asko lantzen. Politika horri dagokionez, beste zenbait erakundek lagundu beharko lukete, foru-aldundiek adibidez, dagokien esparru historiko eta monumentaletan.

Kontuan hartuta EAEn musika ugari eskaintzen dela urte osoan, Turismo Sailak –Kultura Sailaren ekimenez eta haren aholkularitzarekin– kanpoan parte hartzen duen feria eta konbentzioetan musikaren aberastasun hori ezagutarazi beharko luke, Europako ikusleak erakartzeko.

Azkenik, hedatzeari buruzko atal honetan bertan, oso garrantzitsua eta beharrezkoa da musika klasikoa baino emango ez duen irrati-kate bat izatea; programazioan musika klasiko grabatua izango litzateke, baina, batez ere, kontzertuak zuzenean emango lituzke, RNEko Radio Clásica edo Catalunya Música irrati-tan bezalaxe.

Musika-sorkuntza

Arestian, kontzertuak eta musika-ikuskizunak batere koordinaziorik gabe eta bakoitzak bere aldetik programatzen dituzten zentroz eta erakundeez aritu gara, banan-banan.

Kultura Sailak gidaritza-lanak egin beharko lituzke zentro horien arteko koordinazioari dagokienez, proiektu propio berriak batera hasi eta egiteko, bertako egile, musikari eta erreperitorioekin, opera- eta balet-ikuskizunen koprodukzioak esate baterako.

Gaur egungo musika gehiago zabal dadin, komeniko litzateke Musikeneri eskatzea Artium, Chillida Leku, Guggenheim Museoa eta beste zenbait leku aproposetan estreinaldiak eta lehen entzunaldiak antolatzea –eta noski, diru-laguntzak ematea–.

Saritan diru ugari ematen duen Nazioarteko Konposizio Lehiaketa bat sortzen bada eta epaimahaia nazioarteko maisu handiez osatuta badago, konpositore eta editore handiak erakarriko lirateke, eta horrek oihartzun handia izango luke komunikabideetan.

Musika-sorkuntzaren eremuan, badirudi teknologia berriak erabilia dimentsio berri bat irekitzen dela, teknologia berri horiekiko sentikortasun berezia baitute gazteek. 2001eko ekainean Miramongo Parke Teknologikoan (Donostia) munduan aitzindari izan zen esperientzia egin zuten: Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu bat eman zuen bi leku desberdinetatik. Bitan zatitu zuten orkestra –harizkoak batetik eta haize-instrumentuak bestetik–, eta parkeko auditoriotik eta orkestraren egoitzaetik batera jo zuten, zuzendari bakar baten agindupean. Eta, gainera, kontzertua Internet bidez eman zen mundu osora.

Horrelako esperientziak Sailak berak hartu beharko lituzke bere gain, Industria Sailarekin eta beste Parke Teknologikoekin batera.

Halaber, Kultura Sailak Musikaren Saria eman beharko luke (Literatura saria dagoen bezalaxe) urtero edo bi urtean behin, musika-sorkuntzari, interpretazioari edo musika-hedakuntzari dagokienez.